LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

# UDALAREN OSOKO BILKURA

## 2008ko apirilaren 3ko ohiko bilera

**BERTARATU DIRENAK:**

**ALKATE-UDALBURUA**
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV- Mª CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.
EAJ-PNV- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

**EUSKARA ITZULTZAILEA**
KOLDO BIGURI jn.

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**
JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko apirilaren hiruko arratsaldeko zazpiak eta hamabost minutu direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## I.- ERABAKITZEKOAK

**1.- 2008-01-31ko OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

**OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita hamaikan egindako ohiko bileraren akta.

**2.- *VENDING* JARDUERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA HASIERAN ONESTEA:** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko martxoaren 18ko 56. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Otsailaren 19ko 231/08 Dekretuaren bitartez, *vending* jarduera arautzeko jarraibideak eman ziren, horretarako udal ordenantza sortzearen bitartez.

Ondorioz, Udal Zerbitzu Teknikoek horretarako ordenantza idatzi dute eta horren kopia eman zaie bertaratu diren zinegotziei. Honakoa dio ordenantzak, hitzez hitz:

"Azken urteetan txikizkako salmentaren jarduera eta ordutegietan egon diren gizarte eta teknologiako aldaketek *vending* izenaz ezagutzen den jarduera gero eta ugariagoa izatea eragin dute. Jarduera horren bitartez eguneko 24 orduetan saltzen dira hainbat produktu, makinen bitartez.

Gizarteko ohituren aldaketa horrek, printzipioz, ez luke inolako zailtasunik eragin behar, merkataritza askatasunak baimendutako jardueren barruan egonik.

Hala ere, praktikan, kexak sortu dira auzokideen artean, instalazio horiei lotutako guneak behar ez bezala erabili direlako. Izan ere, zokoak, guztiz babestu gabeko guneak, etab. egoten direnez, ohiz kanpoko ordutegian bertan egon eta erabiltzeko aukera eragiten dute, eta auzokideak kexatu egiten dira segurtasun eza, zikinkeria eta zaratak ugaritzen direlako. Ondorio horiek handiagoak izaten dira aipatutako jarduera hori arkupeetan instalatzen bada, jarduera horren helburua (ondasunen bat edozein ordutan saltzea) ez den beste helburu batzuekin egotera bultzatzen dituelako erabiltzaile taldeak.

Hori dela eta, Leioako Udalak hainbat betekizun ezarri beharko ditu horrelako lizentziak emateko eta, horiek, araudiaren babes egokia beharko dute.

Horrenbestez, ordenantzak emateko arloan dagoen toki autonomiaren printzipioari jarraituz, honako arau-xedapen hauek dituen ordenantza hau onestea proposatu da:

**1. artikulua.- Ordenantzaren helburua:**

Ordenantza honen helburua *Vending* izeneko jarduera arautzea da. Jarduera horrekin automatikoki saltzen dira produktuak eguneko 24 orduetan, makina espezializatuen bitartez

**2. artikulua.- Jardueraren ezaugarriak:**

Sektoreko araudiek behar bezala homologatutako makinen bitartez egin beharko da jarduera, eta ezin izango da saldu aurretiko kontrola behar duen produkturik (esaterako alkoholdun edariak eta tabakoa).

**3. artikulua.- Kokalekua:**

Eraikinaren fatxadarekin lerrokatuta instalatu beharko dira makinak, gehienez 30 cm-ko atzeraemangunearekin, euritik babesteko.

Arkupe, galeria edo antzekoetan, ordenantza honen ondoreetarako, barruko hormaren lerrokadura hartuko da fatxadaren lerrokaduratzat.

Fatxadak merkataritza-lokal batenak izan beharko dira, eta hori izango da jarduera horren helbidea, ondore guztietarako.

Zuloak ez eratzen eta gune publikoa ez erabiltzen saiatuko da.

**4. artikulua.- Tarteak:**

Arkupe, galeria edo antzekoak dituzten fatxadetan horrelako makina gehiegi egotea saihesteko, instalazio horien artean gutxienez 100 metro linealeko tartea egotea ezarriko da.

**5. artikulua .- Ordutegiak:**

- Arkuperik ez duten fatxadetan: Ez da ordutegi mugarik egongo.
- Arkupe, galeria edo antzekoak dituzten fatxadetan: 7:00etatik 24:00etara bitartean. Bidezko automatismoak instalatu beharko dira makinetan, behar bezalako funtzionamendua izan dezaten.

**6. artikulua.- Arau-hausteak eta zigorrak:**

Ordenantza hau, gai honetan, aplikatu beharreko hirigintzako araudian eta toki araubideko araudian ezarritakoari lotuko zaio."

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Udal Bulego teknikoak idatzitako ordenantzaren edukiaren jakinaren gainean geratuko da.
- Osoko bilkuraren erabakiaren bitartez, hasieran onetsiko da bertako testua, bidezko aldaketekin. Horrela, jendaurrean azaldu ahal izango da hogeita hamar eguneko epean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

**OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** vending jarduera arautzen duen ordenantza hasieran onestea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

# II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

**3.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK 2008-02-23tik 2008-03-31ra**. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

**4.- PRESAZKO MOZIOAK:**

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jaunak, LEIOAKO UDALEKO ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK honako mozioa aurkeztu du Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 97.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkura honetan eztabaidatzeko:**

**MOZIOA**

Orain dela hilabete gutxi batzuk, 2007ko urrian, hain zuzen ere, 26 urte bete ziren, ETA erakunde terroristak César Uceda Vera musikari militarra, Bilbao Orkestra Sinfonikoko instrumentu-jolea eta Leioako Kontserbatorioko irakaslea Bilbon hil zuenetik.

Hurrengo larunbatean, apirilak 5, gure Udalak "Leioa interpretatzaile gazteentzako" César Uceda sariaren beste edizio bat egingo du, 2008an oraindik herritarrak hiltzen eta haien askatasuna mugatzen jarraitzen duen erakunde terroristaren fanatismoaren biktima izan zen musikari hori omendu eta gogoratzeko asmoz.

Alderdi Popularra udal taldeak uste du, sari hori urtero egiten jarraitzeaz gain, Udalak urrats bat gehiago eman beharko lukeela, César Uceda gizartearen aldetik aintzatesteko. Eta urrats hori erakundeek eta gizarteak, oro har, hainbat urtetan ahaztu izana arin dezakeen aintzatespena bultzatzeko eman behar da.

Horretarako, gure taldeak Leioako Udal Kontserbatorioak “César Uceda Vera” izena hartzea proposatu nahi du, bere lehenengo irakasle eta bultzatzaileetako bat izan zena etengabe aintzatetsi eta omentzeko.

**ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIA BIHURTU DIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DEZAN.**

**BAKARRA:** Leioako Udalaren osoko bilkurak Udal Musika Kontserbatorioak “Conservatorio Municipal César Uceda Vera Udal Musika Eskola” izena hartzea erabaki du.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Alde batetik, musikari militarra eta 1982an ETAren biktima izan zen pertsona hori omentzeko asmoz, apirilaren 5ean "Leioa interpretatzaile gazteentzako" César Uceda sariaren hirugarren edizioa egingo dela aipatu du. Beste aldetik, 2007ko urrian hilketaren 25.

urteurrena izan dela eta gaur egun ETAk herritarrak hiltzen eta haien askatasuna mugatzen jarraitzen duela nabarmendu du.

Uste du aurreko paragrafoan adierazitakoak mozioaren premia justifikatzen duela, bere ustez César Uceda, garai hartan Kontserbatorioko irakaslea zena, alegia, gogoratzeko zerbait gehiago egin behar zelako. Hori dela eta, uste du urrats bat gehiago emango litzatekeela Leioako Kontserbatorioari haren izena ezarriz. Horrela, terrorismoaren biktima horrek azken urteetan pairatu duen ahaztea arinduko da nolabait.

**EB-Bko Daniel Herrera Torrecilla jaunak** esandakoaren laburpena:

Gai horren premia ikusten ez duela esan du, beste eremu batean eta behar bezalako aurrerapenaz aurkeztu behar zelako. Gauzak horrela, pertsona hori neurri handiagoan aintzatesteko formula aztertuko litzateke, talde politiko guztiak eta Kontserbatorioak berak esku hartuta.

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Mozioa oportunistatzat jo du, César Uceda omentzeko kontzertua bilera egin eta handik bi egunetara egingo delako. Era berean, horixe da Isaías Carrascoren heriotzaren ondoren Udalaren osoko bilkurak egiten duen lehenengo bilera eta ez da gertaera hori aipatu. Beraz, biktimei errespetua adierazteagatik eta presak edo eztabaidak alde batera utzita, ETAren azken biktimaren oroimenez minutu batez isilean egoteko eskatu du.

Bere jokaera bere taldeak César Uceda zenari dion errespetua kaltetzeko inoiz izango ez dela nabarmendu du, baina, bere ustez, premia hori neurri handiagoan da "nabarmentzeko gogoa", "bihotz-bihotzetiko sentimendua" baino.

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** euskaraz esandakoaren itzulpenaren laburpena:

EB-Berdeak taldeko Daniel Herrera jaunak esan duen bezala, berak ere ez du ikusten mozioaren premiaren arrazoia eta, erakundeak errespetatuta, egokiena gai hori Soinu Atadia Fundazioko Zuzendaritza Kontseiluan aztertzea izango litzatekeela esan du, bertan alderdi guztiak baitaude eta, horietaz gain, iritzia agertu beharko luketen beste pertsona batzuk ere bai. Halaber, uste du César Ucedaren familiaren iritzia bildu behar dela eta, proposamen horri buruzko iritzia agertu aurretik, hori neurri handiagoan aztertu eta landu beharko litzatekeela.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Hasteko, bai César Ucedak, bai terrorismoaren beste edozein biktimak sorrarazten dioten errespetuak modu oportunistan jokatzea eragotziko liokeela esan du. Bere proposamenaren bidez, César Ucedaren oroimenaren aldeko keinua egin nahi zuela esan du. Mota horretako ekimenak babesteak, Isaías Carrasco ez ezik, terrorismoaren biktima guztiak ere omentzen laguntzen duela esan du. "Leioa interpretatzaile gazteentzako" César Uceda saria laster egingo dela konturatuta, Kontserbatorioak izen hori hartzeko proposamena egin nahi izan du, Kontserbatorioko Zuzendaritza Kontseiluak gai horren berri izateak eragozpenik sortzen ez diola adierazita.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak** euskaraz esandakoaren itzulpenaren laburpena:

Azken boladan Uceda familiaren bozeramaile estraofizialarekin sei alditan baino gehiagotan hitz egin duela esan du eta familiaren ekimenez sortutako lehiaketari aplikatu zaion formatuarekin ados dagoela esan du: probak goizean egiten dira Kontserbatorioan eta, Kultur Leioan arratsaldean egin beharreko ekitaldian, hasieran sarituak 15 minutuko aldia izango du, bere interpretazioa egiteko, eta gero sariak banatuko dira. Ondoren, Kontserbatorioko orkestra gazteak kontzertua emango du eta, amaitzeko, luncha emango da eta bertaratutakoei hurrengo larunbatean egingo den ekitaldira joateko gonbidapena luzatuko zaie.

Alkate jaunak premiari buruzko bozketa egiteko agindu du.

**PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko bederatzi boto**, PSE-EEko sei zinegotzienak eta PPko hiru zinegotzienak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du mozioaren premia **baztertzea**, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.

**5.- <u>ESKAERAK ETA GALDERAK</u>.**

**<u>1. eskaera:</u>**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:
Leioako etxez etxeko laguntzaileen taldeak agertutako gatazka aipatu du; izan ere, bi hilabete baino gehiago daramate greban eta, biztanleriaren sektore oso ahula zaintzen dutenez, egiten duten lanak konnotazio berezia dauka.

Aurrekoa kontuan hartuta, bere udal taldeak, erabiltzaileen eta langileen onerako, alkate jauna eta bidezko udal arloko arduradunak gatazka ahalik eta lasterren konpontzen saiatzea nahi duela esan du.

**<u>2. eskaera:</u>**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Udalaren webguneari dagokionez, hori behar bezala editatzeko beren buruari ezarri zioten epea ikusita, irailera arte nekez abiarazi ahal izango dela ondorioztatu du. Hori dela eta, zenbait eduki lehenago argitaratzea proposatu du, herritarrei gai garrantzitsuenen berri emateko, adibidez, udal organoen osaera, ordenantzak eta abar.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Webguneari dagokionez, eman beharreko oinarrizko informazioa ahalik eta neurri handienean aurreratzen saiatuko direla adierazi du.

Etxez etxeko laguntzari dagokionez, Udala gaia "benetako eskularru zuriz" tratatzen ari dela esan du. Mota horretako gatazkak zailak dira kudeatzen eta garrantzi publikorik ez daukaten aldiak behar dituzte, gatazka ondo amaitzeko beharrezko atzealdea direnak.

Denbora dagoenean, bai EB-Berdeak taldeko Isabel García García Gizarte Ekintza Arloko arduradunak, bai berak, gatazka konpontzeko negoziazioaren berri emango dietela esan du, uste baitu Udalaren osoko bilkura ez dela esparrurik egokiena informazio hori emateko, batez ere, lan arloko gaiei eragiteagatik, kontua hain zaila izanda.

Azkenik, UGT, CCOO, LAB eta ELAk (azken hori orain dela gutxi sartu da) osatzen duten sektore mahaiak negoziatzen duen hitzarmen kolektiborako proposamenak greban dauden langileek daukaten enpresa-itunaren baldintzak betetzen ez dituela esan du. Amaitzeko, bai Isabel García García, bai "Barne Araubideko Batzordeko" burua den EAJ-PNVko Mª Carmen Urbieta González, gaia kontu handiz aztertzen ari direla eta ondo aterako dela espero dutela esan du.

**3. eskaera**:

**PPko Arturo Aldecoa jaunak** esandakoaren laburpena:

Udalaren osoko bilkuraren aurreko bilera batean udalerriko armarri eta banderarako proposamenari buruz esandakoari dagokionez, bere hitzak zuzenduko dituela argitu nahi izan du; izan ere, heraldika eta bexilologiako hainbat adituk adierazi dioten bezala, zuzena da banderan eta armarrian motibo ezberdinak agertzea.

**4. eskaera:**

**PPko Arturo Aldecoa jaunak** esandakoaren laburpena:

"Panpako belarra" izeneko landareari dagokionez, uste du apiriletik uztailerako aldia egokiena izango dela udaleko lorezaintza zerbitzuek komak mozteko, aldi horretan errazagoa delako eta une horretan aktibo dauden heziak ugaltzea eragozten delako.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Arturo Aldecoa Ruiz jaunak aipatu berri duen gaiari dagokionez, hilabete gutxiren buruan, ziur aski jada Artazako parkera konektatuta egongo den Pinosoloko basora sartu ahal izango dela eta Satrústegui eta Aznarrena izan zen finka horrek baso-aberastasun nabarmena daukala eta bertan Panpako belarraren koma bat dagoela adierazi du. Ingurumen arloko arduraduna den Jesús Bilbao Curiel udal taldeko bere kideak horrek esandakoa zuzendu du eta landarea beste espezie batekoa dela egiaztatu dela adierazi du. Horren ondorioz, alkate jaunak aurretik esan duena ahazteko eskatu du.

Bileraren amaieran, alkate jaunak esan du, aurreko bileran zinegotzi berriei ematen zaien zilarrezko intsignia eman ez zenez, bilera honetan PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazares jaunaren trajearen papar-hegalean jarriko duela. Intsignia janzten duen guztietan, horrek Leioako zinegotzi izendatzen duela eta zinegotzia izateak ematen duen harrotasunez eta eginkizun hori burutzearen umiltasunez eramatea espero duela esan du.

PSE-EEko bozeramailearen eskaera aintzat hartuta, Udalaren osoko bilkuraren bileraren amaieran bertaratu direnak zutik jarri, eta minutu batez isilean egon dira, Isaías Carrasco ETAren azken biktimari errespetua adierazteko.

Eta iluntzeko zazpiak eta berrogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,